

2. IKASGAIA. BALTZUEN ZUZENBIDEA

BALTZU PERTSONALISTAK

I BALTZU KOLEKTIBOA

1. Ideia orokorrak: ezaugarriak eta funtzio ekonomikoa

2. Eraketa

3. Barneko harreman juridikoak

1. Bazkideen betebeharrak

2. Kudeaketa

3. Eskubide ekonomikoa

4. Kanpoko harreman juridikoak

1. Baltzuaren ordezkapena

2. Baltzuaren eta bazkideen erantzukizuna

5. Bazkideen aldaketa

6. Desegitea eta kitapena

II BALTZU KOMANDITARIOA

1. Ezaugarriak eta garrantzia

2. Eraketa

3. Barneko harreman juridikoa

4. Bazkide komanditarioaren erantzukizuna

5. Bazkide aldaketa

6. Desegitea (*berezitasunak*)

III PARTAIDETZA KONTUAK

1. Ideia orokorrak

1.1. Kontzeptua

1.2. Ezaugarriak

2. Izaera juridikoa

3. Antzeko figurekiko desberdintasunak

4. Eraentza aplikagarria. Atipizitatea

4.1. Eraentza aplikagarria

4.2. Atipizitatea

5. Eraketa kontratua**6. Barneko harreman juridikoak**

6.1. Gestorearen eskubide eta obligazioak

6.2. Partaidearen eskubide eta obligazioak

7. Kanpoko harreman juridikoak**8. Iraungipena**

I. BALTZU KOLEKTIBOA

1. Ideia orokorrak: ezaugarriak eta funtzio ekonomikoa

Baltzu kolektiboa historikoki, merkataritzako trafikoan sorturiko *lehen forma soziala* izan da. Oinarrizko forma dugu, forma pertsonalista. Izan ere, nahiz eta bazkide izaerarekin elkartu, inguruabar pertsonalek eragin handia daukate baltzuaren bizitzan: bazkide izaera ezin da transmititu ez bada bazkide guztien adostasuanekin, bazkide ororen heriotza edo krisi ekonomikoak baltzuaren desegitea ekar dezake, aldaketek bazkide guztien adostasuna izan behar dute... Arrazoi guzti hauek eta, batez ere, bazkideen erantzukizuna mugagabea dela kontuan hartuz, *XX.mendean zehar garrantzia galdu du baltzu kolektiboak*¹. Hala ere, pisu handia izaten jarraitzen du sistematikoki zein funtzionalki.

Sistematikoki diogu, baltzu kolektiboaren erregimena baltzu zibilaren antzera, baltzu zuzenbidearen atal orokorraren oinarri delako eta honela, atal bereziko zenbait hutsune bete edo zalantzak argitzeko baliagarri izan daitekeelako. Baina garrantzi handiagoa du ikuspuntu *funtzionaletik*. Izan ere, **baltzu kolektiboa merkataritzako trafikoko baltzu orokorra da**. Honela, bere eraentza ez da bakarrik aplikatzen baltzu kolektibo gisa sortu diren baltzuetan baita, baltzu atipikoen kasuan (ondasun erkidegoak, kapitalezko baltzu irregularrak ...).

Baltzu kolektiboa *kanpoko baltzu* bat da, nortasun juridiko propioa du beraz eta, *objetu* gisa *merkataritzako jarduera* bat du zeina, arrazoi sozial bateratu batenpean dagoen eta zeinetaz bazkide guztiek modu mugagabean erantzuten duten. Hala ere, gogoratu beharra dago jarduera zibila ere izan dezakeela (K.Z. 1670. art).

2. Eraketa

¹ Merkataritzako Erregistro Zentralak argitaratutako estadistikak aztertuz ikus dezakegu 2012an 11 baltzu kolektibo eratu zirela Espainian, 2011n 3 izan ziren, 2010ean 5, eta 2009an 7.

Eraketa kontratuaren edukia Merkataritzako Kodeak 125. artikuluan jasotzen du: bazkideen izen-abizenak eta egoitza, sozietatearen izena, konpainia kudeatzeko eta bere izenean sinatzeko ahalmena duten bazkideen izen-abizenak eta egoitza, bazkide bakoitzak egindako ekarpena, konpainiaren iraupena, bazkide bakoitzari urtero ematen zaizkion diru-kopuruak eta azkinik bazkideek egokitzen dituzten itun zilegi eta baldintza berezi guztiak jaso daitezke kontratoan (117 eta 121. artikuluetan jasotako *paktu askatasuna* berriro azpimarratzen da 125.ean).

Baltzuaren izena da jaso beharreko elementu horietako bat, honek identifikatuko bait du baltzua trafikiko juridiko eta ekonomikoan. Kodeak deitura subjektiboaren erizpidea jarraitu du. M.K. 126.art. agintzen du baltzu kolektiboek euren bazkide guztien edota, horietako batzuen edo soilik bazkide baten izena agertu beharko dutela deitura soziala eratzekoan eta azken bi kasu hauetan, “y Compañía” luzapena erantsi beharko dela. Izendapen kolektibo honek baltzuaren arrazoi edo firma soziala eratuko du eta bertan ezingo da inoiz baltzu kolektiboan agertzen ez den kiderik barneratu. Hala ere, bertan bazkide ez diren pertsonak euren izena arrazoi sozial horretan barneratzen badute, erantzukizun solidarioean geratuko dira, hau da bazkide izango balira bezala erantzungo dute. Azken batean, aipatutako M.K. 126. artikulua *egiazkotasun printzipioari* erantzuten dio eta hirugarrenengan sortarazten den konfidantza babestu nahi du.

M.K.ko 119. artikuloren arabera baltzuak eragiketei hasiera eman baino lehen, eskritura publikoan agerrarazi behar ditu bere eraketa, itun eta baldintzak, eskritura hori Merkataritzako Erregistroan aurkeztu behar delarik inskripzioarako, baina eskritura publikoaren eskakizuna ez da kontratuaren baliozkotasun elementu, alegia, izaera deklaratuak dauka (gogoratu M.K.ko 117. artikulua *forma askataunaren* printzipioa jasotzen duela) . Hau da, baltzu kolektiboa ez inskribatzeak ez du ekarriko nortasun juridikoa ez izatea baina, inskribatzen ez bada, administratzaileek modu solidarioan erantzun beharko dute hirugarrenen aurrean (M.K.ko 120. art.). Bestalde, ezin izango dira kodearen eraentza aldatzen duten itunak fede honeko hirugarrenei aurkajarri (adibidez ordezkapenaren antolaketa).

3. Barneko harreman juridikoak

3.1. Bazkideen obligazioak

Baltzu kolektiboan **bazkideak bi funtsezko obligazio** ditu; alde batetik, *ekarpen bat egiteko obligazioa* eta bestetik, *lehiaketa ez egiteko obligazioa* (azken hau orokorragoa den leialtasunez aritzeko obligazioaren eduki bezala).

Ekarpen bat egiteko obligazioak eduki zabala dauka baltzu kolektiboan. Kode zibileko 1088. artikuloa kontutan izanik obligazio hori zerbait eman, egin edo ez egitekoa izan daiteke. Egindako ekarpen horren arabera baltzu kolektiboan *bazkide kapitalista* eta *bazkide industrialak* aurki genitzake. Oro har, lehenak dirua edo ekonomikoki baloratu daitezken ondasun edo eskubideak jartzen duen einean bigarrenak lana jartzen du. Bazkideek dagokion epean euren obligazioa betetzen ez badute, M.K. 170.art. dionari jarraituz, baltzuak erabaki dezake bazkide horren ondasunetara jotzea dagokion ekarpena lortzeko edo, kontratuaren desegite partziala erabakitzea bazkide horri dagokion diru kantitatea gordez (ikus baita M.K. 218.4 art.).

Bestalde, aipatu bezala, bazkidearen beste obligazio garrantzitsuetako bat *lehiaketa ez egitea* da. Obligazio hau M.K. 136-138 artikulua bitartean arautzen da. Artikulu horiekin lotzen da M.K. 218.5 artikulua ezartzen duen santzioa: bazkidearen obligazioa ez betetzeagatiko kanporatzea.

M.K. 136-138 artikuluetan ezartzen dena, lehiaketa ez egitearen obligazioa, bazkidearen fideltasunarekin dator bat. Bazkideek uneoro baltzuaretzat onena nahi izan behar dutela eta ondorioz, ezingo dutela baltzuaren kaltetan abantailarik lortu. Baltzu kolektiboak bere objektua zehaztua ez badauka, bazkideak fidela izateko ezingo du bere kabuz jardun baltzuaren adostasunik gabe. Baina baltzuak ezin dio adostasun hori ukatu ez badu forgatzen bazkidearen jarduerak kalteak sorrarazten dizkiola. Aldiz, baltzu kolektiboak bere objektua zehaztua baldin badauka, bazkideak fidela izateko bere kabuz jardun ahal izango du, beti ere,

bazkidea den baltzuko negozio berean jarduten ez badu. Aipatutako fideltasuna zertsobait aldatzen da *bazkide industrialen* kasuan. Izan ere, hauek ezingo dute euren kabuz jardun baltzuaren bahimen espresurik ez badute behintzat. Lehiaketa egiten duen bazkideak lortu dituen irabaziak sozietateari zor dizkio (136. eta 138. artk).

3.2. Kudeaketa

Eraketa kontratuan besterik esaten ez den bitartean, ulertzen da bazkide guztiek hartzen dutela parte kudeaketan, hots, **bazkide guztiak** direla **administratzaile** (M.K. 129.art.). Hala ere, ez dago argi kudeaketa nola egotzi behar den; modu mankomunatuan ala solidarioki? Horregatik, doktrinan bi iritzi desberdin daude. Batzuen ustez², legezko kudeaketa, elkarrekin eman beharreko kudeaketa da. Hots, administrazioa guztiei dagokie eta edozein erabaki hartzeko guztien oniritzia beharko da. Aldiz, doktrinaren beste aldeak³, M.K. 130.art. oinarrituz, adierazten du legezko kudeaketa modu solidarioan eman behar dela beraz, ez da guztien oniritzia beharko erabakiak hartzeko, bertan jasotzen den “beto” eskubideak barneko efektuak dituelako soilik. Beste gauza bat da aipaturiko leialtasun obligazioak koordinazioa galdatzea, horrela ulertu beharko litzake 129. artikulkoa.

Bestalde, M.K. 132.art. ezartzen duenaren arabera **kudeaketa pribatiboa** eman daiteke. Hau da, kontratuan izenda daiteke administratzaile gisa pertsona bakar bat. Izendapena pertsona zehaz hori kontutak izanik egin bada, bere egoera oso berezia da, ezin bait zaio ahalmen hori kendu.

Orain arte aipatutako artikulua denak **izaera dispositibokoak** dira, beraz, kontratukideek alda dezakete kudeaketaren antolaketa nahi dutenean eta nahi adina baina, beti ere guztien borondatarekin. Doktrinak planteatzen duen zalantza da ea bazkide ez den hirugarren bat izan daiteken edo ez administratzaile.

² Ikus, SANCHEZ-CALERO, *Instituciones de Derecho Mercantil I*, 2012, 366 o.

³ PAZ-ARES, URÍA-MENEDEZ, *Curso de Derecho Mercantil I*, 2006, 621 o.

M.K. 144.art. **administratzaileen erantzukizuna** arautzen du. Kodeak *kulpa larria* eskatzen du administratzailea erantzule egiteko baltzuaren ondarean eragindako kalteengatik. Ez du zehazten, bat baino gehiago izanik, *erantzukizuna solidarioa* edo *mankomunatua* den, berriro ere tokia utziz eztabaida doktrinalari⁴.

Garrantzi handikoa da kodeak 133 eta 173. artikuluetan jasotzen duen bazkideen **informazio eskubidea**. Bazkide guztiek dute, dio 133.artikuloak, administrazio- eta kontabilitate-egoera aztertze eskubidea eta 173. artikulorekin arabera kudeatzaile zein administratzaileek ezin diete ukatu sozietate-administrazioaren egoera adierazteko egin diren balantze ororen egiaztagiriak aztertze aukera.

3.3. Eskubide ekonomikoak

Baltzu kolektiboan bazkideak ekarpena egiteagatik bazkide estatutua lortzen du, *bazkidearen zatia* (“participación”, “interés”, “porción de capital”, kodearen hitzetan). Zati honek finkatuko du bazkidearen eskubideen neurria (eskubide ekonomikoak batez ere: irabazietan parte hartzekoa edo kitapen kuota jasotzekoa).

Bazkidearen zatia kalkulatzeko, kontuan hartzen da, printzipioz bazkideak eginiko ekarpena. Horregatik, orohar, *bazkidearen zatia eta kapitalaren zatia bat etortzen* dira. Dena den kontratua dela medio aldatu daiteke harreman hori. Kasu berezia da bazkide industrialarena, bere ekarpena lana delako eta lan hori kapitalizatzen ez delako normalean. Kudeaketa eskubideak berdintasun printzipioa jarraituz banatzen ditu kodeak (bazkide guztiak duten kudeaketen parte hartzeko eskubidea, denak informazio eskubidea, bazkide bakoitzak botu eskubide bat du erabakiak hartzerakoan...), eskubide ekonomikoen banaketarako kodeak bazkide industrialak bazkide kapitalista txikienarekin parekatzen du (140. art.)

- *Etekinen banaketa*: kontratuan baltzuaren emaitzetan bazkide bakoitzaren partehartzea zein izango den zehaztu ez bada, M.K. 140-141. artikuluetan esaten denari erreparatu beharko zaio. Artikulu hauetan,

⁴ Ikus, PAZ-ARES, URIA-MENENDEZ, 633-634.

hurrenez-hurren, irabaziak eta galerak bazkideen artean nola banatu behar diren zehazten dute, beti ere, bazkide industrialaren izaera berezia kontuan hartuz.

Irabaziei dagokionez, arau orokorra da bazkideek duten kapitalren zatiaren proportzioan banatuko dela. Bazkide industrialen kasuan, kontraktorik ezartzen ez den bitartean, baltzuan gutxien ezarri duen bazkide kapitalistaren berdina jasoko du.

Bestalde, galerei dagokionez berriz, kontraktorik ezartzen ez den bitartean irabaziak banatzeko erabilitako irizpide bera erabiliko da. Baina, bazkide industrialak ez du galeretan parte hartuko bere ekarpena ez baita kapitalera zuzentzen. Hau da, bazkide industrialak hirugarrenen aurrean erantzungo du baina ez ditu galerak jasango. Bazkide industrialak kanpora begira beste bazkide bat bezala bada ere, barrura begira ez du egindako lana besterik galtzeko arriskurik. Hau da, baltzuaren zor bat ordaintzen badu, guztia berreskuratzeko eskubidea izango du, baltzuarengandik edo beste bazkideengandik.

- "*Gastu partikularrak*": M.K. 139. artikulua dio bazkideak bere gastu partikularretarako utzi zaion zenbatekoa bakarrik har dezakela ondare komunitik. Kontutan izan behar da kolektiboa lan komunitate bat izaten dela gehienetan eta bazkideek duten sarrera ekonomiko bakarra edo garrantzitsuena bertatik datorkiela, horregatik ez da itxoiten kontabilitatea itxi arte diru banaketa egiteko. Kontratuan zehaztu behar da zeinek, zenbat eta zer kontzeptutan jasotzen duen diru hori.

- *Gastuen ordainketa*: M.K. 142. artikulua arabera, bazkideek baltzuaren izenean eurek burututako gastuen ordainketa edota pairatutako kalteen ordainketa galdatzeko eskubidea daukate. Eskubide hau batez ere kudeaketa funtzioak burutzen dituzten bazkideak izango dute.

4. Kanpoko harreman juridikoak

4.1. Baltzuaren ordezkapena

Ordezkapenaren inguruan hitz egitekoan beharrezkoa da bi atal desberdintzea; ordezkapenaren *titularitatea* alde batetik eta ordezkapenaren *eremua* bestetik.

Ordezkapenaren titularitateaz hitz egitean, adierazi nahi dena da nork edo nortzuek duten ahalmena baltzuaren izenean jardun eta eginbideak burutzeko, hots, nork edo nortzuek dauden bahimenduak sinadura soziala erabiltzeko. Eredu legala bat dator kudeatzeko eredu legalarekin eta honen arabera, besterik esaten ez den bitartean, bazkide bakoitzak baltzua obliga dezakeela; aldiz, kudeaketa nolakoa izango den kontratuan erabakia izan bada, ordezkapenaren titularitatea horretara mugatu beharko da.

Gerta daiteke ere sistema desberdin bat ematea kudeaketa eta ordezkapenerako. Horrelakoetan, hirugarrenen aurrean aurkajartzeko beharrezkoa izango da Merkataritza Erregistroan inskribatuak egotea. Egon ezean, hirugarrenek Kodeko 129-130. artikuluen aplikazioa aldarrikatu dezakete.

Kodeak *ordezkapenaren eremuaz* ez du zehazki hitz egiten baina doktrinak estimatzen du, fundamentu desberdinekin⁵, eremua baltzuaren objektuak mugatzen duela. Zalantza sortzen da ordezkapen botere hori mugatu denean kontratu bidez. Zer ondorio du horrelako muga batek? Hau da, kontratuan hitzartutakoa hirugarrenen aurrean aurkajarri daiteke? Doktrinaren sektore batek argi uzten du botereak mugagabeak direla eta hortaz, baltzua beti geratuko dela lotua hirugarrenen aurrean (eredua kapitalezko baltzuen eraentza litzake, Kapitalezko Baltzuen Legearen 234. artikulua). Salbuestuko litzatekeen kausa bakarra kolusiozko jarduerarena litzateke. Doktrinaren beste alde batekin berriz dio hitzartutakoa erregistratzen bada hirugarrenen aurrean balioa izango duela (faktorearen eredua jarraituz).

⁵ Ikus, PAZ-ARES, *Curso*, 663 o.

4.2. Baltzuaren eta bazkideen erantzukizuna baltzuaren zorroreko

Obligazioa beti baltzuarena da eta bazkideak horren osagarri izango dira.

Bazkideen erantzukizuna *mugagabea, subsidiarioa, solidarioa eta behin-behinekoa* dela esan daiteke:

- *Mugagabea* (127.art.): baltzu kolektiboaren parte diren bazkide guztiek, bertako gestore izan edo ez, mugagabeki obligatzen dira euren ondare guztiekin baltzuaren izenean egiten diren eragiketa guztietan.

- *Subsidiarioa* (237.art.): subsidiariorotasunak adierazi nahi du hartzekodunek ezin dutela bazkideen kontra joan lehenik baltzuaren kontra joan gabe eta bahieztatu gabe baltzuak ez duela ondare nahikorik obligazioari aurre egiteko. 237.art.-ak eskusio onura aurreikusten dio bazkideari.

- *Solidarioa* (127.art.): solidaritasun irizpideak hartzekodunei atea zabalik uzten die bazkide bakoitzari zor sozial osoaren betetzea eskatzeko.

- *Behin-behinekoa* (142.art.): bazkideak bere erantzukizunaren betetzean ordaindutako kopuruak eskatzeko aukera izango du baltzuari, zorra honena baita. Edo, aukera izango du beste bazkideengandik bakoitzari dagokion zatia jasotzeko (denek parte hartzen bait dute galeretan, industrialak ezik).

5. Bazkideen aldaketa

Baltzu kolektiboak, pertsonalista izanik, bere bazkideen jarraipenean oinarritzen du bere jarraipen propioa, baina horrek ez du esan nahi aldaketarik ez dagoenik. Posible da bazkide berriak sartzea, bazkideak irtetzea edo bazkideek beraien partaidetza baltzuan hirugarren bati transmititzea.

5.1. Bazkideen sarrera.

Bazkide berri baten sarrera onarpen kontratu baten bidez egiten da. Bazkide guztien adostasuna behar duen kontratua (M.K.ko 143. art.), ez bada baltzu kontratuan beste zerbait jaso (gehiengoa, bazkide baten erabakia...).

Bazkide berri bat sartu daiteke baita ere oinordetza medio, baltzu kontratuan horrela onartu balitz (M.K.ko 222.1 art.).

Bi kasutan bazkide berria bazkideari dagozkion eskubide eta obligazio guztiekin sartuko da, bere partaidetzaren portzentaia egindako ekarpenaren arabera finkatuko delarik onarpen kontratuan ez bada beste irizpide bat jaso.

5.2. Bazkide izaeraren eskualdaketa (143.art.)

Bazkide batek eskualdatu dezake baltzuan duen zatia beste guztien adostasunarekin, ez bada baltzu kontratuan beste modu arinago bat adostu (gehiengoaren baimena, bazkide zehatz batena...). Doktrinan eztabaidatu da eskualdateka askea posible egiten duen klausula bat onartu daiteken edo ez. Bazkide berriak baltzua utzi duen bazkidearen posizio berdinean sartuko da, bere eskubide eta obligazioekin (izaera txit pertsonala duten eskubide eta obligazioekin ezik). Posible da baita eskualdaketa partzial bat egitea.

5.3. Bazkideen banantzea

Kodeak 224 eta 225. artikuluetan bazkidearen salaketa eskubideak jasotzen dira, bi alegia: banantzea eskatzekoa eta baltzuaren desegitea eskatzekoa. Biak arrezagutzen ditu kodeak plano berdinean, bazkidearen aukera bezala. Doktrinan proposatzen da, kontratuaren bidez, desegitea eskatzeko eskubidea kanpo uztea, honela bermatzen direlako joan nahi duenaren eskubidea eta negozioarekin jarraitu nahi dutenena.

5.4. Kanporatzea

Bazkidearen kanporatzeaz hitz egitean, obligazio sozialak bete ez dituela eta bazkidearen irteera edo derrigorrezko uzteaz ari gara, beti ere, baltzuak bizirik jarraituz gainontzekoen artean. Kodeak 218. artikuluan kanporatze kausak jasotzen ditu (kontratuan aldatu daitezke):

- bazkideak baltzuaren kapitala eta (edo) sinadura beraren konturako negozioetan erabiltzea
- kudeatzailea ez den bazkideak administrazio-egintzetan parte hartzea
- bazkide administratzaileak administrazioan edo kontabilitatean maula egitea
- ekarpena ez egitea
- lehiaketa egitea (136-138. artikulok urratuz)
- bazkideari dagozkion prestazio pertsonalak ez betetzeagatik horretarako deitua izan denean
- “beste edozein modutan” kontratuan jasotako obligazioak ez betetzeagatik klausula orokorrarekin ixten da artikuloa.

Doktrinaren gehiengoak kanporatzea santzio bezela ikusten du, neglijentziaz edo doluz gertatutako ez betetzearen ondorio bezala, baina badago zeinek ez betetzean ikusten duen kausa, kontutan izan gabe borondatez izan den edo ez⁶.

5.5. Konpentsazioa

Baltzua uzten duen bazkideak, bai bere borondatez bai derrigortua, bere zatiaren balorea errekuperatzeko eskubidea izango du eta baita lortutako eta banatu gabeko irabaziak eskuratzeko. Azken honi, kitapen kuota deritzogu. Hala ere, kontuan izanik baltzua uzten duenari ez zaiola baltzuaren likidazioa ematen den unean ematen den bera ematen (ez bait da kitapenik egin), badago zeinek esaten duen konpentsazio ekonomiko bati buruz hitz egin behar dela eta ez kitapen kuotari buruz.

⁶ Ikus PAZ-ARES, 695. o.

Bazkideak derrigortuta uzten duenean baltzua bere obligazioak bete ez dituelako, jasoko duen konpentsaziotik baltzuari sortutako kalte eta galerengatiko kopurua ken diezaioke.

5.6. Erantzukizuna

Baltzua uzten duen bazkideak erantzungo du bera kide zen bitartean sorturiko zor sozialengatik (beste erantzun bat kode zibilaren 1205. artikulokoaren kontrakoa litzakete). Bazkide berriak ere erantzuten du bera sartzera koan dauden zorrengatik. Kodeak ez du arzo hauei buruz ezer esaten, baina honela uste du doktrinaren gehiengoak⁷.

6. Desegitea eta kitapena

Baltzuaren iraungipen prozesuan hiru momentu bereiztu behar ditugu: desegitea, kitapen prozedura irikitzen duen kausa baten presentzia; kitapen prozesua, zeinaren bitartez hirugarrenik sortutako harremani amaiera ematen zaien; eta iraungipena zentzu hertsian, kitapen kuotaren banaketarekin emango dena.

Prozesua, esan bezala, desegite kausa baten agertzearekin hasten da. Honek ez du eraginik sozietatearen nortasun juridikoan baina bere objektua aldatzen du: kitapena izango helburua da aurrerantzean.

6.1 Desegite kausak

Kodeak 221-224. artikulotan hainbat desegite kausa jasotzen ditu. Ez da zerrenda itxi bat (bazkideen akordioa, edo bazkide batek zati guztiak eskuratzea ere desegite kausak dira), baina eztabaidatzen da horietako batzuk bazterterik badagoen kontratoaren bidez, demagun bazkide baten konkurtsoen likidazio-fasearen irekitzea.

⁷ Ikus, PAS-AREZ, 667. o.

Lehenengo legezko desegite kausa kontratuan jasotako epe-mugaren betetzea da (221.1. art.), automatikoki desegiten du baltzua bazkideen akordiorik gabe. Honekin batera objektua den enpresa burutzea aipatzen da artikulo berdinean. Kapital osoa galtzea erea jasotzen du kodeak (221.1 art.). Azken bi kausa hauek beste zabalago baten adibide bezala ulertzen ditu doktrinak: helburua beti ezinarena (non adibidez organuen paralizazioa ere egon daiteken). 221.3. artikuluan likidazio-fasea irekitzea, konkurtso egoeran dagoen sozietatearena, aipatzen da. Bazkide baten hiltzea, bazkide administratzailearen inabilitazioa edo likidazio-fasea irekitzea bazkide baten konkurtsoan ere baltzuaren desegite kausak dira 822. art. Baina lehenengo kasuan posible da kontratuan sozietateak iraun egingo duela ituntzea bai hildako bazkideen oinordekoekin, bai bizirik dauden bazkideekin. 224. artikuluan azken legezko kausa jasotzen da: bazkide baten salaketa. Kodeak eperik gabeko sozietaten kasuetarako jasotzen du salaketa eskubidea, ohiko salaketari buruz hitz egiten da doktrinan; baina eztabaidatua dago epe baterako sortutako baltzuen kasuan halako eskubiderik badagoen ala ez. Kode zibilak jasotzen du ez-ohiko salaketa eskubidea (1707. artikuluan), arrazoi zuzen baten aurrean. Doktrinaren zati baten ustez arau hau, analogiaz, aplika daiteke baita kolektiboaren kasuan.⁸

Kontratuan bazkideek beste desegite kausak batzuk ere adostu ditzakete.

6.2. Kitapena

Kitapenaren araudia Merkataritzako Kodeko 227-237. artikuluetan kokatzen da. 227. artikulok lehentasuna ematen dio sozietate kontratuan jasotakoari, bertan ez bada ezer esan kodean araututakoa jarraituz egingo da kitapen hori.

Kitapenaren helburua baltzuaren ondarea askatzea da, horretarako hirugarrenekin sortu diren harreman juridikoei amaiera eman behar zaie, zorrak ordaindu beharko dira eta kredituak kobratu. Administratzaileak

⁸ Ikus PAZ-ARES, 728. o.

kitatzaile bihurtzen dira (228-229 artk.) eta beraien funtzioak aldatu egiten dira, iraungipenera zuzenduz.

Kitapen prozesua bazkideen artean egiten den ondare netoaren banaketarekin amaitzen da. Horretarako kitatzaileek bazkideek onartu behar duten balantze bat aurkeztuko dute banaketa proposamen batekin (232. art.). Printzipioz kitapen kuotaren ordainketa diruz egiten da, baina kontratuan edo akordio bidez bazkideek horrela erabakitzen badute, ordainketa *in natura* egin daiteke.

6.3. Iraungipena

Behin banaketa egin ondoren, beraz kitapen prozesua itxi ondoren, baltzua iraungi egiten da. Iraungipen akordioa eskritura publikoan jaso beharko litzake eta Erregistroan inskribatu, baina inskripzio honek ez du izaera deklarazalea besterik.

II. BALTZU KOMANDITARIOA

1. Ezaugarriak eta garrantzia.

Baltzu komanditarioa Merkataritzako Kodean *baltzu kolektiboaren eraldaketa bat bezala aurkezten zaigu*⁹. Baltzu komanditarioaren *aldaketarik azpimarragarriena* da bazkide kolektiboekin batera bazkide berezi batzuk dituela, **bazkide komanditarioak**. Azken hauek erantzukizun mugatua dutelarik.

Baltzu komanditarioak, aipatutako bazkideen berezitasunaz gain, *hiru ezaugarri garantzitsu* ditu: **(1) kanpoko baltzua** da, hortaz, nortasun juridiko propioa duen baltzua da; **(2) izaera pertsonalista** dauka, hots, garrantzia daukate bazkideen baldintza eta gorabehera pertsonalek eta; **(3) objektu bezala merkataritzako jarduera** dauka, baina, merkataritzako izaerak plano objektiboan (tipoaren merkantilitatea) bakarrik du eragina, izan ere, objektu zibiletarako forma izan daiteke (KZ 1670 art.).

Esan beharra dago gaur egun *praktikan gutxi erabiltzen* den baltzua dela, nahiz eta potentzial handia izan, bazkide inbertsiogileak behar direnean, sozietate profesionalen kasuan, edo saneamendu finantzieroa bilatzen denean.

2. Eraketa

Baltzu komanditarioa, baltzu kolektiboaren antzera, eratua geratzen da fundatzaileek kontratuaren oinarrizko elementuak adosten dituztenean.

Oinarrizko elementu horietako bat M.K. 146-147.artikuluetan dago arautua: bere *arrazoi soziala (deitura subjeliboa)*. Arauketa honen arabera, bazkide komanditarioak arrazoi sozialetik at geratzen dira, soilik bazkide kolektiboen izenekin osaatu daiteke baltzuaren deitura (komanditariaren izena agertzen bada, bere erantzukizuna kolektiboaren bezalakoa izango delarik). *Egiazkotasun printzipioa* inperatiboa da, hots, ez da bazkideen eskuetan

⁹ Ikus, Eizaguirre, *Derecho de sociedades*, 2001, 197.o.

geratzen. Bestalde adierazi behar da zer baltzu mota den “S. en C.” edo “S.Com” siglekin (M.E.E. 403.art.).

M.K.ko 145. artikulua *eraketaren eskriturari* egiten dio aipamena. Baina, hau ez da forma ukanbehar bezala kontsideratu behar, inkripziorako ukanbehar bat bezala, baizik. Beraz, elementu honek ez du baltzuaren baliozkotasuna ukitzen¹⁰.

Baltzu komanditario irregularrak planteatzen duen arazoa komanditarioen erantzukizunaren eremuan azaltzen zaigu. aipatuz. Galdera da ea inskripziorik gabe ahal zaien hirugarrenei aurkajarri bazkide komanditarioen erantzukizun mugatua. Honen aurrean, iritzi desberdinak daude doktrinaren. Honela, batzuek uste dute baltzu komanditarioa inskribatzen ez bada, bazkide komanditarioak kolektiboan antzera erantzungo dutela. Aldiz, beste batzuren ustez, bazkide komanditarioek erantzukizun mugatua izango dute zeren, hirugarrenek badakite baltzu komanditario batekin kontratatzen dutela, beraz badakite bertan erantzukizun mugatua duten bazkideak daudela. *Caveat creditor* printzipioa jarraituz onartutako arriskuari aurre egin beharko diote¹¹.

3. Barneko harreman juridikoak

Barneko harreman juridikoen diziplina, bai arlo administratiboa bai ondareari dagokion arloa, disposatzeko printzipioaren arabera arautzen da. 117 eta 121. artikuluetan jasotako *paktu askatasuna* da nagusi.

Baltzu komanditario barnean bazkide kolektiboek duten egoera kolektiboaren berdina da (148. II art.), aldiz bazkide komanditarioak baltzuaren kudeaketatik kanpo geratzen dira. 148. IV.art. nahiko argia da: ezin dute konpainiaren administrazio-egintzarik gauzatu, ezta bazkide kudeatzaileen ahalordetu bezala ere. Arauaren arrazoia hirugarrenen babesa da¹². Horregatik barneko harremanetan aldatu daiteke, ezin duena komanditarioak da baltzua ordezkatu, ez eta gestoreen apoderatu gisa ere. Baina komanditarioak ez dira

¹⁰ Ikus Eizaguirre, 2055. o edo PAZ-ARES, 747. o.

¹¹ Ikus PAZ-ARES, 748 o.

¹² Doktrina ez dago baina guztiz ados, ikus PAZ-ARES 752-753 o.

eskubide gutxiagoko bazkideak eta edozein kasutan parte hartu dezakete kontratuaren aldaketa guztietan.

Kodeak mugatzen du baita komanditarioen *informazio eskubidea*. M.K. 150.art. urte amaieran balantzearen berri izateko eskubidea arrezagutzen zaie, hori bai, balantze hori egiaztatu eta eragiketei buruzko iritzia emateko beharrezkoak diren agiri eta aurrekariekin. Baina eskubide hau zabaldu daiteke kontratuan, artikulok berak esaten duen bezala.

Amaitzeko, *bazkide komanditarioen eskubide ekonomioez* esan genezake, berriro ere kontratuan arautu beharreko arazo baten aurrean gaudela. Ez bada bertan ezer esaten kolektiboari buruzko arauak (M.K. 140-141.art.) aplikatu beharko direlarik. Gauza bera gertatzen da galerekin, hala ere, bazkide komanditarioa ez da obligatuko bere ekarpenaren gainetik (148. III art), ez badira kontratuan ekarpena eta erantzukizunaren neurria desberdindu. Kasu honetan komanditarioak erantzun dezake hirugarrenen aurrean ekarpenak adierazten duen kopuru altuago batengatik, baina berriro ere estatutuetan ezarritako mugarekin¹³.

4. Bazkide komanditarioaren erantzukizuna

M.K. 148. art. bazkide komanditarioen erantzukizunaren inguruan honako hau dio: “*bazkide komanditarioek ekarritako edo ekarri beharreko fondoekin bakarrik egin behar diete aurrerako konpainiaren obligazio eta galerei*”. Honen arabera, ulertzen da bazkide komanditarioaren erantzukizunaren neurria berak ezarritako ekarpenaren arabera ezarriko dela. Baina, gerta daiteteke, esan bezala, bat ez etortzea ekarpena eta erantzukizuna baltzu kontratuan horrela jaso bada.

Bazkide komanditarioaren erantzukizuna *pertsonala* (bazkideak bere ondarearekin erantzungo du), *subsidiarioa* (ondare sozialarekin erantzungo da lehenik), *solidarioa* (baina ez da solidaritate uniforme bat, hots, solidaritasunak ezin du bazkide komanditarioaren erantzukizuna gainditu) eta *behin-behinekoa* (bazkide komanditarioak hirugarren bati asetzeko obligazioa izan badu, baltzuari eta bertako bazkideei eska diezaieke “pro

¹³ PAZ-ARES, 760 o.

cuota” ordaindutakoa). Ez da ahaztu behar bazkide honek bakarrik erantzungo duela ez badu ekarpen guztia egin edo erantzukizunaren neurria altuagoa balitz ekarpenarena baino, azken kasu honetan izango du ordaindutakoa berreskuratzeko akzioa.

5. Bazkide aldaketa

Baltzu komandataria, aurretiaz esan bezala, baltzu pertsonalista da eta horregatik, bazkide aldaketak kontratu aldaketa dakar zeinak, *bazkide guztien (komanditarioak barne) adostasuna* beharko duen, . Praktikan, posible da kontratuan adostasuna kolektiboi mugatzea, horrela ulertu daiteke Merkataritzako Erregistroaren Erreglamenduak 212. artikuluko esaten duena.

Bazkide aldaketak dakarren arazo garrantzitsuenetariko bat sartzen denaren eta irtetzen denaren erantzukizuna finkatzea da. Honela, *bazkide komanditario berri bat sartzen denean*, sartzen den momentutik baltzuaren obligazioen erantzule da. *Bazkide baten irtetze kasuan* berriz, bazkideari dagokion konpentsazio ekonomikoa, ekarpenaren bueltatze bat litzateke eta honela, irtetzen den bazkideak baltzuak une horretan dituen zor sozialetaz erantzungo luke (hiru urteko epean, MK 947 I-II art.). Aldiz, *bazkide komanditario baten transmisioa ematen* bada, ateratzen denak ez du inongo erantzukizunik bere gain hartuko ez baitu konpentsazio ekonomikorik ateratzen bertatik, sartzen den bazkideak bere zatiaren prezioa ematen baitio.

6. Desegitea (*berezitasunak*)

Desegiteari dagokionez, oro har, baltzu kolektiboan esandakoa hartu behar da kontuan. Hala ere, atal honetan zeinbat berezitasun aipatuko ditugu.

Ez dira desegite kausa, baltzu kolektiboan ez bezala, bazkide komanditariaren heriotza, gaitasun gabetzea edota konkurtsoa.

Desegite kausa izango da, bazkide kolektibo bakarraren irteera edo baja. Izan ere, baltzu komanditarioak ezin du aurrera jarraitu bazkide kolektiborik gabe. Honela, bazkide komanditario guztiak baltzua uzten badute baltzu komandataria baltzu kolektibo eraldatuko da, edo bere kasuan, baltzu zibila.

III. PARTAIDETZA KONTUAK

1. Ideia orokorrak

Figura juridiko hau kodeak sozietateen ataletik kanpo uzten du. Sistematikoki ez da jasotzen baltzu moten artean, hala ere baltzu kontratuaren kontzeptu zabal baten barnean kokatu dezakegu. Baltzu kontratu gehienek eduki bikoitza badute ere, obligaziozkoa eta instituzionala, partaidetza kontuak lehenengoa besterik ez du. Honek esan nahi du obligazioak eta eskubideak sortarazten dituela kontratu kideen artean, baina ez duela pertsona juridiko berririk sortzen trafikoan. Bere eraginkortasuna soilik parte hartzen dutenen artean zabalduko da. Ez dauka “arrazoi komertzial komun” batenpean kanpo erlazioak izateko bokazioa ez eta ere banandutako ondare bat sortzekorik. Hortaz, argi dago **partaidetza kontuak ez duela nortasun juridikorik**, barneko baltzuak dira.

1.1. Kontzeptua (M.K. 239 art.)

Kodeak dioenez merkatari batzuk beste batzuen eragiketetan interesa dutenean, eragiketa horietan parte hartu dezakete, itundutako kapital zatia emanaz; horrela lehendabizikoek bigarrenen emaitza onuragarri nahiz kaltegarrietan parte hartuko dute, beraien artean zehazten duten proportzioan. Merkatari batek (gestoreak) baliabide berriak lortzen ditu eta besteak (partaideak) inbertsio bat egiten du bestearen negozioan.

1.2. Ezaugarriak

Kodean jasotakoaren arira, honako ezaugarriak identifikatu genitzake:

- a) Bi kidek osatutako baltzua da, gestoreak eta partaideak, alegia.
- b) Partaidetza kontuek garatutako jarduerak merkataritzako izaera izan behar du. Hortaz, gestoreak komertziantea izan beharko du. Partaideak berriz ez du, doktrina eta jurisprudentiaren arabera, zertan merkataria izan behar, nahiz eta kodearen hitzez hitzeko interpretazioak hori eskatzen duela ulertu daiteken.

d) Partaideak egindako ekarpena gestorearen ondarean integratzen da. Beraz, gestoreak horietaz disposatzeko botere nahikoa izan beharko du.

e) Aurretiaz esan bezala, partaidetza kontuak ez dute kanpora begira jarduten. Ondorioz, bazkideek ez dute kanpora begira komunean jarduten.

f) M.K. 239.art. jarraiki, partaideak bai irabazietan bai galeretan hartzen du parte. Parte hartzearen inguruan ezer esaten ez bada, baltzu kolektiboaren eraentza aplikatuko da.

2. Izaera juridikoa

Partaidetza kontuen izaera juridikoa eztabaidatua izan da eta da oraindik ere. Gorago esan bezala kodeak ez ditu sistematikoki baltzuen artean kokatzen. Hau kontutan izanik eta baltzu kontzeptu hertsia batetik abiatuz, doktrinaren zati batek ez ditu sozietate kontsideratzen¹⁴.

Baina baltzu kontzeptu zabal batetik abiatzen bagera, hau da, ulertzen badugu pertsona bat baino gehiago euren borondatez elkartzen direnean helburu komun bat lortzeko eta horretarako ekarpen desberdinak egiten dituztean, baltzu baten aurrean gaudela, esan genezake partaidetza kontuak baltzu bat direla.

Behin baltzu izaera aitortu dugularik, azpimarratzekoa da partaidetza kontuak oinarrizko baltzuak edo baltzu primarioak direla, hots, barneko baltzuak. Horretaz gain izaera pertsonalistako baltzuen artean kokatu behar ditugu.

3. Antzeko figurekiko desberdintasunak

Teorikoki kontzeptua argi izanda ere, askotan errealitatean ez da erreza izaten kontratu hau beste batzuegandik desberdintzea, eta hori kontratukideek ez dutelako berarien arteko harremana ondo definitzen. Bi

¹⁴ Hauen artean VICENT CHULIA, *Introducción al Derecho Mercantil II*, 2012, 1616 o.

dira bereziki antzeko figura horiek: baltzu komandatariora eta mailegu partziarioa.

Ikuspuntu ekonomiko batetik begiratuta, esan genezake antzekotasun txiki batzuk badirela partaidetza kontuen eta baltzu komanditarioaren artean, bazkide komanditarioak ere inbertsio bat egiten du eta ez du, printzipioa, gestioan parte hartzen. Hala ere, bi kasuetan egitura juridikoa oso bestelakoa da. Baltzu komandatariora, kanpora jarduten duten nortasun juridiko propioa du eta hortaz, ondare sozial bat duela ulertzen da. Gainera, erantzukizunari dagokionez, baltzu komanditarioetan bazkide komanditarioak nahiz eta era mugatuan erantzun, erantzukizun zuzena dauka hirugarrenen aurrean eta, erantzunkizun hau partaideen kasuan berriz da ematen.

Mailegu partziarioari dagokionean berriz, esanguratsuak dira honek partaidetzako kontuekin dituen antzekotasunak. Izan ere, mailegu partziarioetan mailegu-emailearen ordainsaria ez da finkoa, baizik, emaitzen arabera da. Baina hemen ere badago desberdintasun esanguratsu bat: partaideak galereten ere parte hartzen du, bere inbertsioa arriskatu egiten du, hori ez da gertatzen mailegatzaillearekin, honek ez du mailegatutako berreskuratzeko eskubiderik galtzen.

4. Eraentza aplikagarria. Atipizitatea

4.1. Eraentza aplikagarria

Partaidetza kontuen *araudi legala*, M.K. 239-243.art. kokatzen da eta esan daiteke bereziki murrizta dela. Honen aurrean, garrantzia hartzen du *eraentza ordakatzaille* bat izatearen ideiak. Honela, merkataritzako egintzen iturri sistemari erreparatuz (M.K. 2.I. art.), lehenik, merkataritzako baltzuei dagozkien xedapenak aplikatuko dira eta, modu ordezkatzaille batean, baltzu zibilari dagozkion xedapenak.

4.2. Atipizitatea

Atipizitate deritzogu partaidetza kontuen zenbait modalitate zein konfigurazioei. Honela, *atipizitate legala* eta *atipizitate enpirikoaz* hitz egin genezake.

Lehenengoak adierazi nahi du badirela zenbait kasu M.K. 239.art.-ko definiziotik aldentzen direnak. Honela, legalki atipikoak diren partaidetza kontuan, partzaidetza kontu “zibilak” dira. Hauek ez daukate merkataritzako jarduera eta baltzu zibilen eraentzaz eratzen da. Bigarren kontzeptuak berriz adierazi nahi du ohikoak ez diren zenbait ezaugarri ematen direla. Hau da, partaideak barneko kudeaketan parte hartzea, ondare komun bat eratzea edota partaide anitz egotea lirateke atupizitate enpirikoaren adibide.

5. Eraketa kontratua

M.K. 240. artikulutik eratortzen da *forma askatasunaren* erregela partaidetza kontuentzat. Honela, eraketa kontratua hitzez edo idatziz eman daiteke. Hala ere, idatziz ez jartzeak ondorio larriak ekar ditzakeenez, normalean, eraketa kontratua dokumentu publiko edo pribatuan ezartzen da. Bestalde, kontratu horretan alderdiek askatasun osoa dute erlazioaren arauketaren ildora, izan ere, kontratuak bakarrik barrura izango du eragina.

6. Barneko harreman juridikoak

Barneko harreman juridikoak aztertzeko, kontratuko bi alderdiek dituzten eskubide eta obligazioak aztertuko ditugu.

6.1. Gestorearen eskubide eta obligazioak

Gestoreak bere izenean kudeatzen du negozioa, baina, ez bere interes propioan bakarrik, baizik, alderdien interesean. Hortaz, baltzu kolektiboko administratzaileei aplikatzen zaien arau bera (M.K. 144.art.) aplikatuko zaio. Nahiz eta, kudeaketa gestorearen kontua izan, partaidearen adostasuna beharko du aldaketa esanguratsuak aurrera eramateko bere negozioan. Gestoreak portaera leial bat izan beharko du partaidearen aurrean. Portaera horrekin lotuta, gestoreak lehiaketa egiteko debekua izango du eta gainera, partaideari kontuak emateko obligazioa izango du (M.K. 243.art.)¹⁵.

6.2. Partaidearen eskubide eta obligazioak

¹⁵ Ikus PAZ-ARES, 607. o.

Partaideak edo partaideek, gestoreari hitzartutako kapitala emateko obligazioa daukate. Ekarpeneren objektu dirua edo dirua ez den beste ondasun bat izan daiteke. Ekarpenera hori gestorearen eskuetara pasako da. Ez da ondare komun sortzen partaideen artean. Bestalde, kontratuan ala aurreikusten bada, partaideak barneko kudeaketan parte hartu dezake, hori bai ezingo du hirugarrenekin harremanik izan. Informazio eskubidea jasosten da kodean (243 art.) baina zabaldu daiteke kontratuan, eduki konplexuago bat emanaz. Amaitzeko, kontratuan argi ezartzen ez bada, M.K. 140.art. arabera, partaideak irabazi eta galeretan parte hartzeko eskubide eta obligazioa izango du bere ekarpeneren arabera.

7. Kanpoko harreman juridikoak

Esan dugu *partaidetza kontuek ez dutela, kontu bezala, kanpoko harreman juridikorik* (M.K. 241.art.). Beraz, merkatariaekin sinatzen dutenek bere aurka bakarrik izango dute betetzea galdatzeko akzioa (M.K. 242.art.). Partaideak ez du hirugarrenen aurrean erantzungo. Hala ere, azken adierazpen honek bi salbuespen ditu: (1) partaideak soilik berme eskubide bat ekarri duenean erantzuten du hirugarrenaren aurrean, berme-emaile bazala; (2) izen komun bat erabiltzen bada trafikoan, partaideak itxura juridikoaren teoriaraino oinarrituz erantzuten du.

8. Iraungipena

Kodean ez daude aurreikusiak partaidetza kontuen iraungipen arrazoiak, baina, kontuan hartuz bere baltzu izaera, baltzuen disoluzioen arrazoiak buruzko arau orokorrak (K.Z. 1.700. art.) aplikatuko zaizkie. Arau orokor horren arabera, partaidetza kontuen iraungipena honako arrazoiengatik eman daiteke: bazkideen arteko adostasunagatik; epea iritsi delako; helburua lortzeko ezintasunagatik; gestorearen heriotzagatik, gaitasun gabetze edo konkurtsoagatik, eta; ohiko edo ez ohiko salaketagatik.